

Aurten ere herritarrek Durangoko azokan

Jesus M. Perez Azaceta mendizale eta idazlearekin egon gara argitaratu berri duen *Trekking Donostia-Baiona* gidari buruz solasean. Durangoko azokan *Sua* argialetxearen erakustokian aurkituko duzue gida.

Baina hau ez da lasarte-riatarrek azokan erakutsiko duten produktu bakarra. /4



Lasarte-Oria Nazio Batuen Garapenerako Programan

Udalaren laguntzaz Ekuadorreko Mira eremuan zentro gerontologikoa egingo da

Lasarte-Oriako Udalak Nazio Batuen Erakundearekin sinatu duen hitzarmen baten ondorioz, udalak Ekuadorren garatuko den lankidetzeta programa batean parte hartuko du. Honetan, 3. adineko herritarrei zuzendutako zentro gerontologikoa eraikiko da.

Era honetara, Lasarte-Oriako Udala Nazio Batuen Garapenerako Programaren parte izango da.

Proiektuaren aurkezpena

Astehenean, Nazio Batuetako Garapenerako Programaren barruan dagoen *Art Ekuadorreko* ordezkaria den Julio Portielesek, proiektuaren berri eman zien Udala Gobernuaren eratzan duten zinegotziei.

Honela, erakundearen helburuak azaldu zituen eta

garapena lortzeko, Ekuadorreko eta kanpoko instituzioek batera lan egin dutela azpimarratu zuen.

Hauke batzorde bat sortzen dute eta eremu bakoitzean lehenasunezko proiektuak zeintzuk diren erabaki eta martxan jartzen dira.

Honela, Carchi herrialdeko Mira eremuko proiektuaren xedea azpiegitura eta kipaemendua egokia ezartzea da, eremuko hirugarren adineko pertsonen arreta osoa eta duina izan dezaten. Honetan, Udalak aurrekontuaren %42a finantzatu du, hain zuzen ere, 33.750 dolar.

Era honetara, lankidetzeta deszentralizatuari garrantzia ematen diotela azaldu zuen. Eta lagundutako herrialdeko instituzioen eta laguntzaileen



NBGPko Julio Portielesek proiektuaren berri eman zion Udala Gobernuari.

arteko harreman zuzena eta elkartrukeak ere sustatzen direla ere adierazi zuen, "ez da bakarrik errekurtsoak ematea."

Udala ordezkariak egin zituzten galderen ondorioz,

besteak beste, kaleko dendei ematen zaizkien mikromailegu eta gobernu aldaketek proiektuan izan ditzaketen aldaketak ere izan ziren hizpide. •

Giza eskubideen alde

Amnistia Internacional elkar-tearen *Defensores* argazki erakusketa inauguratu zen asteartean Kulturetxean.

"Gure herritarrei beste herrietako errealitatea erakutsi nahi diegu eta azken hila-beteetan erakusgai jarri ditugun erakusketak, hala nola, ihesa edo Saharakoa, horren erakusgarri dira," azaldu zuen Jesus Zaballosek.

Erakusketa

Ostean, Sofia Moro egileak udala ordezkariak erakusketako zehaztasunak azaldu zituen, "iaz elkarteko 30. urteurrena eta Giza eskubideen 60. urteurrena ospatzeko antolatua genuen erakusketa."

"35 pertsona ezezagunak dira, nazio ezberdinetakoak, Israel, Mexiko edo Kolonbia, errekurtso gabeak, eta bere herrialdean giza eskubideen alde borroka egiten dutenak dira," aipatu zuen.

"Erakusketan ikusi daitezkeen pertsonak bere bizitza jokoan jartzen dute, Afrikako babesleak, esate baterako, hilketak eta sarraskien berri ematen dute. Beraz, hango gobernuentzat traba bat dira eta bere herrialdeak utzi behar izan dituzte. Bartzuk hilak daude," gaineratu zuen.

Argazkiak hilaren 18a arte egongo dira erakusketa aretoan, asteazkenetik 21:00etara. •



Astearte arratsaldean, Sofia Moro argazkilaria eman behar zuen hitzaldia hurbildu ziren herritarrek, aukera paregabea izan zuten. Izan ere, argazkilaria berak *Defensores* erakusketako gida izan zen eta azalpen ugari eman baitzizkien.

GIZARTEA /3

Atez-ateko bilketari buruzko solasaldia egin zen asteazkenean

KIROLA /6

Loidi-Barreneko pilotaleku berria erabiltzeko prest

Hurrengo
TXINTXARRI
hilaren 11n
argitarauko
dugu

EGUNEKO MENUA

KALE NAGUSIA 67 • Lasarte-Oria

- RAZIOAK
- PLATER KONBINATUAK
- PINTXOAK
- BOKATAK
- SANDWICHAK
- ETXEKO POSTREAK
- GOSARIAK

Jalai
cafe bar

Kalitatea eta preziorik onena
leku berean

TEL.: 943 372760

Neure kabuz



Musika

Bada zerbaiz berezia musikarengan. Nire kasuan, behinik behin, zentzumen guztiak asaldatu eta, egoera txarretan ere, burua altaztera zaramatzen zerbaiz da, zure barne-barnetik irtearazko sentimendu sendo eta astintzaile bat. Momentu alaietan ere, burua sutan eta dantzatzeko gogoz beterik sumatzen duzun horietan, musikak bidea ireki ohi dio eromenari, mundutik, segundo soil batez bada ere, ihes egiteko gogoari.

Hitz eta doinuen arteko oreka perfektua litzateke zerbaiz hau, gure barneko sekretu ilunenarekin ere guztiz identifikatzera garamatzana. Baina ez pentagrama gaineko zirriborroek haien artean sorturikoa (entzulearen kasuan behintzat), artistaren barnetik datorrena baizik; artistaren sormenetik eta lanketatik, bihotz barren-barrenetik, agian, mundu honetan gizabanako ameslarioi aske izateko geratzen zaigun eremu bakarretik, jaio eta gurera iristen dena.

Askea da, beraz, musika. Edota, askeak dira gure bihotzak. Batek daki. Erromantikoeak akaso. Dakidan bakarra da, musika hau bera dela ni aske sentiarazten nauena.

Musika, sormena eta aske izatea aipatu ditut. Deskribaturiko sentimendu iraultza hau gauzatzeko, hirurak batera, modu honetan behar dutela iruditzen zait. Bizi izan duenak badauki zertaz mintzatu berri naitzen. Eta bizi izan ez duenak, aukera paregabea du. Ondo pasa abenduaren hemeretzi eta hogeian.

Txando Arrizabalaga

Zorion-agurrak



Sandra

Zorionak 18. Urtebetetzean, oso ondo pasa eta mila muxu. Maite zaitugu. Patriziaren partetik.



Aimar

Zorionak guapiximo zure hirugarren urtebetetzean etxekoan partetik.



Goiatz

Zorionak eta ondo pasa zure 3. urtebetetzean bihurri!!! Aitona eta amonaren partez.



Julia

Zorionak eta ongi pasa zure urtebetetzean! Zure seme Jose Carlos, Idoia, Miguel eta Arkaitz.



Ander

Zorionak zure 11. urtebetetzean familiaren partetik.



Aritz

Zorionak eta txokolatezko bi muxu aita, ama eta Enekoren partetik.



Maitane

Zorionak Maitane zure hamahirugarren urtebetetze egunean. Ondo ospatu familiaren partetik.



Itziar

Lasai neska! Mende laurdena ez da hainbestetako. Gaztako 25 muxu potolo.



Nahia

Zorionak, muxu handi bat. Guraso eta etxekoren partetik.



Oier

Zorionak Oier. Muxu haundi bat eta ondo portatu orain bezala. Zure izeben partetik.

Guardiak

Ostirala, 4

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Larunbata, 5

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Igandea, 6

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Astelehena, 7

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Astearte, 8

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteazkena, 9

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Osteguna, 10

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Etxebizitza alokatzen da: 2 logela, sala eta jangela. Altzariek dago eta berogailu zentrala du. Abala eskatzen da. Harremanetarako zenbakia: 649 526 766.

• Apartamentua salgai Lasarte-Orian. Egoera onean dago. Toki lasaian eta berritu berria. Bikotearentzat egokia. Harremanetarako zenbakia: 657 708 866.

• Landetxe bat saltzen da Alfaro, Errioxan. Terreno eta igerilekua-rekin. 2 logela, egongela tximinia-rekin, sukaldea, komuna eta portxea. Harremanetarako zenbakia: 675 702 428.

Salerosketak

• Mountain bike bizikleta bat salgai. 8-10 urteko haurarentzat da eta kalitate handikoa. Oso egoera onean dago. Salneurria 100 eurokoa da. Harremanetarako zenbakia: 656 781 177.

Lan-eskaintzak

• Pertsona bat behar da hiru urteko haur bat zaintzeko. Ikastolan jaso eta bazkaria eman, eguerditik laurak arte. Harremanetarako zenbakia: 646 645 445

Lan-eskariak

• Ingelesko magisteritzako 3. mailako ikaslea naiz eta LHko zein DBHko 1. zikloko ikasleei klaseak emateko prest nago (ingeleza edota beste ikasgai batzu). Kontakturako: 943372874 eta 635720017 Urtzi.

• Umeak edo pertsona adinduk zaintzeko eta garbiketa lana egiteko prest dagoen emakumea. Tel.: 671 788 303

• Klase partikularrik ematen dira: euskara, lengoaia, matematika, ingeleza... Tel.: 943 362532.

• Pertsona adinduk etxean edo kalera ateratzen laguntzeko emakume bat eskaintzen da. Tel.: 626 641 155 (Maria Jesus)

• Mutil gazte bat eskaintzen da eraikuntzan, garbiketa edo base-ri batean lan egiteko. Tel.: 677 593 772 (Sshakeel).

Bestelakoak

• Ezkontza zein ekitaldietan abes-terko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. Tel.: 690 784 113.

• 6 katu ditut oparitzeko, hilabete dute eta arraza arruntekoak dira. Tel.: 647 821 361.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com
Tel.: 943 366858 • Geltoki 4

Jaiotzak

Garazi Almagro zaldu, azaroaren 29an
Nahia Gómez Gómez, azaroaren 29an

Heriotzak

Tomas Elexpuru Aizpurua, azaroaren 29an 74 urte zituela
Crescencio Garcia Rodriguez, azaroaren 25ean 86 urte zituela

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055

Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kirolegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Bakezko epaitegia ... 943371629
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Atez ateko bilketa aztergai

Lasarte-Oria Bizirik! taldeak antolatuta, asteazkenean, *Atez atekoa: egiak eta gezurrak* hitzaldia eskaini zen Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Jordi Colomer, San Markos Mankomunitateko aholkularia izan zen azalpenak eman eta herritarren galderei erantzuna eman ziena. Moderatzaile lanetan Xabier Andonegi Lasarte-Oriako parrokoa egon zen.

Egiak eta gezurrak azaldu

Bilketa selektiboaren xedea hondakin kopurua jaistea da. Era honetara, "baliabide gutxiago ustiatu eta energia gutxiago erabiliko litzateke produktu berriak sortzeko," aipatu zuen Colomerrek.

San Markoseko aholkulariak 2001eko hondakinaren legearen ostean 5.000 biztanle baino gehiago herriaren organikoaren bilketa egin beharko litzatekeela gogoratu zuen.

Eta, era berean, egun dau den bilketa selektiboko bi moduak erkatu zituen Jordik, edukiontzien datuak eta atez atekoarenak emanaz. Honela, "4 edukiontzirekin hondakinaren %20 biltzen bada, 5. edukiontziarekin %35a, Amarako kasuan, giltza erabiltzen, %20a eta atez atekoarekin Katalunia eta Mallorkako irloko herrietan batz besteko %70a biltzen da," azaldu zuen.

Gainera, "edukiontziekin erantzukizuna ez dugu guregan hartzen; atez atekoarekin aldez, hondakin kopuruaz jabetzen da jendea," azpimarratu zuen.

Gainera, hondakin organikoaren bilketaren buruzko



Herritar ugari hurbildu zen hitzaldi aretora Jordi Colomer, San Markos Mankomunitateko aholkulariak azalpenak entzuzera.

datuak herritarrei ongi azaltzen ez zaiela ere aipatu zuen, "batzuetan, ez dute biztanleria osoa kontuan izaten eta bestetan, konposta egiten duten herritarren kopurua ere ahazten dute."

Bestalde, hondakin biltzekiez Jordik atez atekoarekin birziklatu ezin diren hondakin biltokia behar dela onartu zuen eta, era berean, errauskailuak hondakin toxikoak hartzen dituen biltegi berezia behar duela azpimarratu zuen.

Errauskailuari buruz ere jardun zen, hala nola honek behar dituen hondakin kopurua, filtroak eta osasunean izan ditzaken ondorioak. "Errauskailuak energia sortuko du, bai baina azkenean produktuak egiteko gehiago kontsumituko da," aipatu zuen.

Honetan gain, azken aldi

entzundako zurrumurrueri erantzuna emanaz, "Usurbiletik ondoko herrietara hondakin turismoa dagoenik ezin izan dugu frogatu San Markosen," azaldu zuen.

Eta konpostaren usainari buruz ere mintzo zen, "konpostaguneetan urik ez badago, hondakin organikoa begetalarekin nahastean bada iristean eta aireztatzen bada, basoko luraren usaina izan beharko luke konpost horrek."

Galderak

Herritarren galdera ugari erantzun zituen, hala nola, atez atekoaren kostea, bilketa egunak klimaren arabera ezartzen direla eta herritarrek erabakitzen dituztela, etxean banaketa selektiboa egiteko behar den lekua edo gaizki egiten duena nola zigortu daitekeen azaldu zuen.

"Inor ez dagoela behartuta atez atekoan parte hartzera. Egin nahi ez duenak gainera, larrialdietarako eremua," gogoratu zuen.

Hasierako kezka eta beldurrak aurka ere erabiltzen direla salatu zuen, "baina azkenean herritarrak hiru edo lau hilabeteetara kontent agertzen da."

Elkarretaratzea

Hitzaldiaz gain, gaur bertan, arratsaldeko 19:00etan *Lasarte-Oria Bizirik!* taldeak herriko udaltxearen aurrean elkarretaratzea egingo du, *Emandako hitz errespetatu. Atez atekoa orain!* lelopean.

Era berean, deialdia luzatzen die elkarteko bileratar hurbildu, asteazkenean 20:00etatik aurrera Ludotekan, eta atez atekoa ezartzearen alde lan egiteko. •

KUDEATUZ

Udal zerbitzuen gogobetetasunari buruzko ikerketa

Udalerrietan herritarren parte-hartzea bultzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatzen duen Kudeatuz II programaren barruan, herritarrek Udaleko zerbitzuei buruzko duten gogobetetasuna ikertuko da.

Azaroan Lasarte-Oriako etxetara norberak betetzeko bidali zen galde-sortarekin batera, aurki telefonozko elkarrizketak egingo dira.

Guztira, 550 inkesta egingo dira Lasarte-Oriako herriaren artean eta 30 galdera baino gehiago erantzungo dituzte.

Udaletxetik biziki eskertuko zaie herritarrei galde-sortari adaitasunez erantzuteko prest egotea, ikerketa hori egiteko ardura duen enpresaren deia jasotzen badute. •

ATERPEA

Beharpen kupoiak eta eguberrietako kanpaina abian

Herritarrak erostera animatzeko eta bezeroak fidelizatzeke, Aterpeko dendek beharpen kupoiak banatuko dituzte.

Establezimendu bakoitzak bereak ez ezik, gainerakoek kupoiak izango ditu eta, era honetara, elkarteko beste establezimenduetara joatera gonbidatuko zaie jaso duten kupoiaren abantailaz gozatzeko.

Era berean, 2009ko abendutik 2010eko urtarrilaren 6a arte, Aterpeko txartelarekin edo dirutan ordainduta 2 puntu emango zaizkio erosleari establezimenduetan aurkituko duen katalogoko opariren batengatik trukatzeke.

Eta azkenik, Eguberrietako kanpaina dugu.

Honetan, Aterpeko hemezortzi establezimenduk, Libreria Ekain, Merceria Aritzta, Ormazabal Loradenda, Ferreteria Sukoia, Fontaneria Biyona, Lentzeria Maya, Optica Lizarri, Panaderia Goxogi, Copisteria Kalkos, Lenceria Olmi, Moda Hombre Nogues, Bazar Abreu, Libreria Zumaburu, Urruzola Mertzeria, Martinez Multimedia, Coop. Michelin, Zapateria Iturbe eta Bideo Lagunak, bakoitzak bere produktuen lote bat zozketatuko du.

Zozketak urtarrilaren 7an izango dira eta irabazleak komunikabideetan agertuko badira ere, establezimenduak berak esango die bezeroei eta emango dizkie opariak irabazleei. •



Saharako Maratoia Muntteri-AEKn

Lasarte-Oriako Muntteri-AEK eukaltegiaren, urtero Saharako herritarrenganako elkartasunaren ikurra den Saharako Maratoiar buruz hitz egin zen atzo.

Tomas Arruti herritarrak eta Gorka Lasak bere esperientzia, hau da, lasterketa eta

Saharan egin zuten aste beteuk egonaldia, kanpamentu ezberdinetara eta ahalbidetzen diren proiektuetara bisitak, azaldu zizkieten euskaltegiko ikasleei, baita herritarrek bizi duten egoera ere. •

Michelinen kaleratzearen aurka

Eulen enpresak Michelin enpresa babesarekin 10 langile kaleratu ditu.

LAB sindikatuek jakin arazi dutenez, Eulen taldea, oso erata dago Euskal Herri osoan eta lan bolumen handia du. Hala ere, ez ditu kaleratutako

langileak enpresako beste lan zentroetan berkokatuko.

Horregatik, Euleno langileek, hil honetan egunero 13:00etatik 15:00etara kontzentrazioak egingo dituzte Michelingo enpresaren aurrean. •



LAB sindikatuko delegatuen babesa izan zuten lehenengo kontzentrazioan.

Jesus M. Perez Azaceta *Trekking Donostia-Baiona. Euskal Eurohiriko ibilbide zirkularra gidako idazlea*

Durangoko azokan, lasarteoriarren lanak

MARTIN ANSO:

Itzulpenak

• *Clara Campoamor: emakumeen eskubideen defentsan* Victor Vilardel Besch-en liburua. TXERTOA argitaletxea.

• *Darwin bidaiaria* Nicolas Cuvier-en liburua. TXERTOA argitaletxea. 9-12 urte bitarteko gaztetxoentzat.

• *Marco Polo abenturazalea* Sara Cordon-en liburua. TXERTOA argitaletxea. 9-12 urte bitarteko gaztetxoentzat.

PABLO BARRIO:

• *Armiarmategian: isil-mihisilka* ARTEZBLAI argitaletxea *Santurtziko Serantes IX. Antzerki lehiaketan* saritutako lana

PIRRITX, PORROTX eta MARIMOTOTX:

Liburuak

• *Ane pirata* ELKAR eta KATXIPORRETA argitaletxeak. 6 urteik gorakoentzat.

• *Sirenak eta piratak* ELKAR eta KATXIPORRETA argitaletxeak.

Musika eta DVDa

• *Irien lagunak* KATXIPORRETA argitaletxea. Xabier Zabala-ren musikarekin eta lagun mordoa-ren laguntzaz pailazoek grabatutako KD liburuxka.

• *Piratak* KATXIPORRETA argitaletxea. Andoaingo *Bastero Kulturagunean* zuzenean grabatutako emanaldia, gehi erreportaje eta sorpresa pila 2 bideo-diskotan.

HARKAITZ CANO:

• *Pasaia Blues* PAHL-RUGENSTEIN NACHFOLGER GmbH argitaletxea. Frankfurtuko Goethe Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroak 1999an argitaratutako lana alemanierara itzuli du.

‘Mendian ibiltzeaz gain, hurbileko euskal kultura ezagutzeko aukera dugu gida honi esker’

NEREA EIZAGIRRE

Duela bi urte *Montes de Donosti* gida idatzi zuen eta bertan, Gipuzkoako hiriburuko mendietako ibilbideak aurkezten zituen Jesus M. Perezek. Oraingoan, Donostia eta Baiona elkartzeko ibilbide berezia proposatzen dugu. Izan ere, biribil forma duen ibilbidea aurkezten baitu *Trekking Donostia-Baiona* liburuan, 12 etapatan zatitua eta kultura ere uztartzen duena. Durangoko azokan *Sua* argitaletxearen erakuslekuan aurkituko duzue, egilearen aburuz “familientzat edo mendian hasi berriak direnentzat” aproposa den gida hau.

Nola sortzen da *Trekking Donostia-Baiona* gida egiteko ideia?

lazko abuztuan, nire familierekin 18 egunez ibili nintzen Himalayan, Annapurnako trekking-a egiten. Hango parajeetan, munduko ederretarikoa otu zitzaidan ideia.

Mendizaleak askotan, gure lurraldetik kanpo egiteko joera dugu, gure inguruaz ahaztuz. Hemen hiri ederrak ditugu, Donostia esate baterako. Hiri ezin politagoa, erakargarria oso, itsasoa eta mendietatik inguratuta. Baiona ere zoragarria da, eta hemen ondoan dugu. Beraz, erreferentziatzko bi herrialde nituen. Buruari eragin eta herrialde hauek batzeko asmoarekin ibilbidean pentsatu beharra zegoen.

Zergatik aukeratu duzue ibilbide zirkularra?

Hasieratik aurreikusita zegoen ibilbidea biribila izango zela, baina Donostia-Baiona.

Ezagunak nituen bide ezberdinak elkartu, Santiagoko Bidea, GR-121 Gipuzkoari buelta ematen dion bidea, GR-11 Kantauri Itsasoa eta Mediterraneo Itsasoa elkartzeko duten bideak eta Donostiatik Baionara bidean, perimetrotik zihonan bide erakargarria zegoela aurkitu nuen eta Eurohiriaren eremua zela ere.

Orduan, Aldundiarekin harremanetan jarri eta haiek bulegoetan landutakoa prakti-

kan jartzeko aukera zegoela ikusi zuten.

Honetaz gain, Zarautz, Aia ere EuroHiriaren barruan sartzen zirela esan zidaten. Era honetara, ibilbidea hobetzen zihonan eta interesgarriagoa bihurtu zen, Pagoeta parke naturaleratik igarotzeko aukerara zegoen.

Normalean Donostia-Baiona ibilbidea zuzen eta kostaldetik egin da...

Bai, bi hiriak kostaldetik elkartuta daude. Baina hasieratik argi neukan garatzen ari nintzen ibilbidean kosta izango zela bueltako bidea.

Gainera, nik mendi historikoak igaro nahi nituen, hala nola, Adarra, Larrun, Andatza, Bianditz... Eta, era berean, iparraldeko zonalde historikoak eta ezezagunak, Sara, Senpere edo Espeleta.

Zer aurki dezakegu gida honetan?

Etapak bakoitzeko mapa, ibilbideko deskripzio zabalak eta datu nagusiak. Etaparen perfila ere aurki daitezke.

Honetaz gain, etapa bakoitzaren hasiera eta amaiera herrigune edota hirigune batean hasi nahi izan ditut. Ostatua, garraio publikoa dituzten herriak dira.

Era honetara, ibilbideak 250 kilometro ditu eta 60 orduan egin daitezke. 33 herri edo hirietatik pasatzen da eta 15 museo ikusteko aukera eskaintzen du. Oso gida osoa dugu.

Kulturako gauzak ere aurkitu ditzakegu, beraz?

Bai, horrela da, mendia eta kultura uztartu nahi izan ditugu.

Era honetara, etapa bakoitzaren barnean

kulturako hiru proposamen daude, museotara bisitak edo eremua hobeto ezagutzeko liburua. Proposamen hauek “Galdu ezin ditugunak” izendatu ditut.

Mendian ibiltzeaz gain, hurbileko euskal kultura ikasteko aukera dugu.

Honela, gauza polita eta erakargarria argitaratu dugu. Astebururako egiten ditugun planetarako interesgarria.

Jendeak ezagutzen dituen bideak dira?

Nik ez dut ezer asmatu. Markatuta dauden bide ezagunak dira, nik loturak egin ditut, besterik ez.

Gainera, kontuan izan behar da, etapa batean marka ezberdinak jarraitu behar direla.

Bideak egiteko errazak al dira?

Bidezidor guztiak teknikoki errazak dira, ez dago zaila edota arriskutsua den biderik. Ibilbidean aurkitzen dugun maldarik gogorrena Larruneko igoerakoa da.

Beraz, familiarekin egite-

koak dira edo mendian hasi berriak direnentzat.

Ficoban burutu zen Mendiexpon egin zen aurkezpena, ezta?

Bai, muga arteko erakusketa azoka bat denez, leku aproposa iruditu zitzaigun. Izan ere, gida honekin iparraldera ere begiratu nahi baikenen.

Oso gutxitan joaten gara bertako hiriak edo museoak bisitatzea eta gauza harrigarriak ditugu hemendik oso hurbil. Biarritzen adibidez, Museo Asiatica aurkitzen da. European dagoen museo hobereenetarikoa dugu eta Txina, Tiber, Indiako... piezak ditut; Sarako kobazuloak, Arnaga Etxea Kanbon...

Nolako harrera izan du liburua?

Oso ona. Erabiltzeko erraza da eta gauza berritzaileak aditza ematen ditu. Eta hori erronka bat izan da guretzat. Izan ere, inguruko era guztietako mendi gidak baititugu.

Gainera, Donostiako Euskal Camping elkarteak laguntza paregabea eskaini dit. Bere presidentek Gipuzkoako mendi guztiak inork baino hobeto ezagutzen ditu eta oso serio hartu zuten proiektu hau.

Eta honen harira, Donostiaren 2016 hiriburutza babesten, euskal kostako ibilbideak egiteko irteerak antolatuta dira.


Durangon ere izango da *Trekking Donostia Baiona* gida, eta aurrekoaren antzera saltzea espero dut. •



Aurrera egin



+



+

ADEGI

+



CAMARA DE GIPUZKOA
ASOCIACIÓN DE EMPRESARIOS Y COMERCIANTES
GIPUZKOKO BAZKUNTZA

+



+



Donostia Uda
Ayuntamiento de San Sebastián

=

gipuzkoa **aurrera**

Aurrera egin, elkarrekin.

Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-pribatutik elkarlanean ari gara,
indarrak eta ahaleginak batuz.

Gipuzkoa guztiaren gainera dagoelako.

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 5

10:00etan, Ostadar-Dunboa (Infantilen Ohorezko Maila, kopa) Michelinen.

11:30ean, Texas Lasartearra-Vasconia (I. Jubenila) Michelinen.

11:30ean, Euskalduna-Ostadar (I. Kadetea) Allurralde, Andoainen.

13:15ean, Ostadar-Aurrera (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) Michelinen.

15:30ean, Ostadar-Luberri (Emakumezkoen Erregionala) Michelinen.

15:30ean, Martutene-Ostadar (I. Jubenila) Martutene, Donostian.

17:15ean, Texas Lasartearra-Amaroz (I. Erregionala) Michelinen.

Asteartea 8

10:30ean, Ostadar-Ekintza (I. Kadetea) Michelinen.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 5

17:45ean, Aldaz H.K.-Santurtzi (Nazional B maila) Kiroldegian.

JUDO A

Larunbata 5

Egun osoa, LOKEko Esteban Matinez, Mario Garrido, Josu Olmos eta Abayuba Gutierrez judoek Totanako Hiriko IV. Nazioarteko Judo Txapelketan parte hartuko dute, Murtzian.

Kiroletako oharrak

Kirol gunea itxita

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, Michelingo Kirol gunea hilaren 6 eta 8an itxita egongo dela.

Bestalde, kiroldegia igandean, astelehenean eta asteartean irekita egongo da, ohiko igandeetako ordutegiarekin. Hau da, 9:00etatik 13:00etara.

Igerilekuak ere, ordutegi bera izango du.



Loidi-Barreneko pilotaleku berria, edonork erabiltzeko prest

Astelehenean, Ana Urchueguia alkatea, Mikel Cabieces Estatuko ordezkaria, Udal zinegotziak eta Kirol Zerbitzuko Arduraduna Karlos Altuna, besteak beste, Loidi-Barren eremuko frontoi berria bisitatu eta inauguratu zuten.

Izan ere, alkateak eta Estatuko ordezkariak pilotakada batzuk jokatu baitzituzten eta udal ordezkariaren bat ere animatu baitzen.

Erabiltzeko prest

Kiroldegi ondoan dagoen pilotaleku berriari buruz, "herritarrek erabiltzeko prest dago. Irekia izango da eta edonork erabili ahalko du. Beraz, dagoeneko haurrak etorri daitezke hona jolastera," azaldu zuen alkateak.

"Garrantzitsua zen proiektu hau. Herriko erdialdeko eraberritzearen ondorioz,

pilotalekua lekuz aldatu behar genuen," gaineratu zuen.

Era berean, paddle pista eta rokodromoko estruktura eta estaldurako lanak bukatu dira.

Proiektua

Tokian Tokiko Estatuko funtsak finantzaturako proiektu hau eraikitzeko lanak 6 hilabete iraun dituzten eta honi esker, udalerriko kirol ekipamendua osatu eta sendotuko da.

Orain, Iñaki Mugika alkateordeak irailaren 10ean lanei buruz argitaratu genuen erreportaje batean aipatu zuenaren arabera, "Udalaren esku dago, rokodromo eta paddleko azpiegiturak osatu eta frontisa harriz estaltzea. Beti ere, egoera ekonomikoak ahalbidetzen badu." •



Frontoiko lehenengo tantoak alkateak eta Estatuko ordezkariak egin zituzten.

Lasarteoriatarrak lasterka Donostiako 32. Maratoian

Donostiako Maratoiko 32. edizioa ospatu zen igande goizean. Eguraldia lagun izan zuten probako partehartzaileak eta lasterketa ederra burutu zen Gipuzkoako hiriburuan.

Estatuko hainbat herrialdeetako korrikalariak parte hartu zuten, baita lasarteoriatarrak ere.

Azkarrena, Rafael Iglesias izan zen. Hamalau kilometroan lasterketa burua hartu eta helmugara arte, postua mantendu eta bigarrenari zazpi segundoko errenta atera zion.

Lasarteoriatarrek maratoian

Lasarte-Oriako korrikalariak bi kategorian ezberdinetan parte hartu zuten.

Honela, senior mailan lehenengo lasarteoriatarra, Toño Perez Rodriguez, 125 postuan helmugaratu zen; beteroetan, berriz, lehenengo lasarteoriatarra 20 postuan sartu zen helmugara, Andoni Illaramendi Sagarna.

Hauk dira herritarren denborak: Andoni Illaramendi Sagarna, 02:36:53; Julen Ollokiegi Biurrarena, 02:50:13; Toño Perez Rodriguez, 02:57:35; Imanol Arteaga Aizbitarte, 03:08:44; Jose Luis Delgado Arenales, 03:10:09; Guillermo Trombo-



Ostadar K.E.-ko korrikalariak igande goizean, Donostiako Maratoian parte hartzeko irrikaz. Arg: Ostadarreko Atletismo Saila

tti Cortejarena, 03:15:06; Javier Olazagoitia Rodriguez, 03:23:19; Joseba Iparragirre Usaralde, 03:24:11; Jose Ramon Mendizabal Garate, 03:26:43; Jose Ignacio Elvira Sánchez, 03:27:16; Eduardo Rivas Clemente, 03:27:07; Iraitz Arruabarrena Jauregi, 03:27:22 eta Mikel Ormazabal Garmendia, 03:45:23.

Futbola

Bestalde, aipatzeko da Ostadarreko beste bi taldeek lehiaketako bigarren fasean sartu zirela lehengo astean.

Batetik, Jubenilen ohorezko mailako taldea dugu.

Lehenengo fasean, 7 partida irabazi zituzten ohorezko jubeniak. Azpimarragarria benetan etxeko partidetan egindako lan

ona. Izan ere, irabazitako 5 partida Michelinekoak baitira.

Ondorioz, sailkapeneko laugarren postua eskuratu eta igoera fasean daude.

Bigarren taldea, Infantilen Ohorezkoa dugu. Partida bakarra irabazi eta beste bat berdindu ostean, taldeak kopa edo jaitziera fasea jokatuko ditu orain. •

Egunero

Erakusketa

SOKA ARTEAN, argazki erakusketa. Zirrikaren argazkiak. Jalgin.

Erakusketa

Amnistia Internacional erakundearen DEFENSORES erakusketa. Sofia Mororen argazkiak. Kulturetxean, 12:00etan.

Larunbata, 5

Kontzertua

SUSTRAI TABERNAREN LEHENENGO URTEURRENA ospatzeko *Aurka* eta *Despervicio* taldeek emandaldia eskainiko dute. Sustrai tabernan, 19:00etan.

Ostirala, 11

Kontzertua

Danok Kide elkarteak antolatutako V. TOPAKETA MUSIKALEN 2. SAIOAN Musiké tekne hari laukotearen kontzertua. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Kontzertua

FUSIONK!!! TALDEAREN emandaldia gazte kontzertuen barruan. Bertan indie electro country entzun ahalko da. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Larunbata, 12

Kontzertua

PARROKIAREN 440 URTEURRENARI AMAIERA emateko *Laura Ortigosa* Soprano dramatikoak eta *Miroslaw Gorski* klabezin jolearen kontzertua. XVII eta



Bidaietako Diaporamen azkeneko saioa ostegunean

ARGENTINARI buruz arituko da Alex Tetuan Bidaietako Diaporamen zikloaren azken emandaldian..

OSTEGUNEAN, HILAREN 10EAN
JALGIN, 21:30EAN
EUSKARAZ

XVIII. Mendeko lanak eskainiko dituzte. San Pedro parrokiaren, 19:30ean.

Kontzertua

Kutxaren babesarekin, ONAITIKO GANBARA ABESBATZA. Kulturetxean, 20:00etan.

Igandea, 13

Zinea

G-FORCE filma ikusgai haurrentzako zinea atalean.

Sarrera: 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

Astelehena 14

Jardunaldiak

Sukaldaritza jardunaldiak Udaleko merkataritza sailak antolatuta, 14tik 17ra bitartean. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Oharrak

XVII. Jaiotzen Lehiaketa

Danok Kide Guraso Elkarteak antolatzen duen Jaiotzen Lehiaketan parte hartu nahi duenak, jaiotza abenduaren 19an eta 20an, Elkarteak Blas de Lezo kalean duen egoitzan utzi behar du, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Banaka nahiz taldeka parte hartu daiteke; egindako jaiotzaz gain, gutunazal batean egileen izenak sartu behar dira eta azalean parte-hartzaileen adina idatzi; jaiotzak, gehienez, 80x60 zmtakoa izan daitezke eta ez da onartuko hondo sendorik gabekoa, ezta lehiaketa honetara aurreko urteetan aurkeztutakorik ere.

Ordulari bat galdu da

Orain egun gutxi emakumezkoen ordulari bat galdu zen herriko erdigunean. Korrea beltza du eta borobila da. Topatu duenak mesedez, deitu dezala: 943 362632.

Multimusikalari laguntza

Multimusikalari laguntzeko antolatzaileek bonoak jarri dituzte salgai tabernetan. Bi bono mota daude, Kuadrillentzako 50 eurotakoak eta banakoa 20koa. Errifak ere aterako dituzte. Honetaz gain kontu korronte honetan ere diru sartu dezake nahi duenak: 2101 0048 20 0125573386. Animatek zaitzete Multimusikalari aurrera ateratzeko!

Umeen bi zapata agertu dira

Bata urdina da eta Hipodromo etorbidean topatu zuten orain egun gutxi. 19 zenbakikoa da eta Bubble bobble markakoa. Berri-berria dago.

Besteak berriz, Kroseko egunean, azaldu zen Jalgi kafe-antzikian. Marroia da eta 3-6 hilabeteko haurrentzako da.

Zapatak Itakuneko bulegoan jaso daitezke.

Errausketaren aurkako elkarretaratzea

Emandako hitza errespetatu. Atez atekoa orain! Ilemapean elkarretaratzea antolatu du Lasarte-Oria Bizirik taldeak gaurkorako, 19:00etan udal-etxearen aurrean.

Lasarte-Oriako Bizilagun Elkartearen oharra

Larunbata honetan, abenduak 5 Kultur Etxea itxita egongo da, eta ondorioz ez dira eskolak emango.

EHNarekin arazoak izan badituzu

EHNarekin arazorik izan badituzu edo/eta informazio gehiago nahi baduzu, harremanetan jarri zaitzete posta elektronikoa honetan lasarte@baieuskalherriari.org. Ez izan dudarik eta bidali mezua lasai asko!

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com

Eskutitzak

Gazte ta independentista: delitua

Lasarte-Oriako gazte mugimendua osatzen dugun eragileok, atxiloteten harira honakoa adierazi nahi dugu:

1. Gazte Mugimenduari aurkako operazio bezala ulertzen dugu; ikasle mugimenduan, gaztetxe eta gazte asanbladetan, mugimendu feministan, jai herrikoien aldeko mugimenduan, aisialdi alternatibo baten aldeko lanean edota etxebizitza duin baten aldeko dinamiketan lan egiten duten gazteak dira atxilotuak, beraz, ez dugu antolakunde baten kontrako operazio modura ulertzen, baizik eta Euskal Herrirako eredu alternatibo baten alde lan egiten duen Gazte Mugimendua osoaren kontrakoak. Horregatik aditzera eman nahi dugu, gaurko egunetik aurrera, are eta indar zein gogo handiagorik arituko gara herrian herriarentzako lanean.

2. Berritua ere oinarritzeko Eskubide Zibil eta Politikoak zantpatuak izan dira. Euskal Herriaren aldeko lanean,

proiektu guztiak dira zilegi, independentziaren aldeko lana beraz, ezin da kriminalizatu izan, asko baitira herri honen askatasunaren alde antolatzen diren gazte antizak.

3. Gazteon kontrako erasaldi jarraiak etetea exigitzen dugu. Ondorioz, gazteok gure proiektuak aurrera eramateko eskubide guztiak bermatuak izan daitezela eskatzen dugu.

4. Gazteria anitza eta zabalak dauka Euskal Herriak, horregatik, batera erantzuteko deia egin nahi dugu; bakoitzak bere eremutik, norbanako zein kolektiboki, manifestuarekin (www.mundurak.net/gazteaklibre) atxikitzeke zein, egoeraren gaineko gogoeta eta irakurketa plazaratuz.

5. Gazte Mugimenduari erantzun bateratua aditzera emango den gaurko 12tako prentsaurrean, Donostiako Ibaetako Kanpuseko Aularioan, parte hartzea deitzen dugu. Bestalde, bihar larunbata, Durango 17:00tan azokatik burutuko dugun manifestazio bateratua gazte mugimendua deitu, mugimendua osatu baten moduan batera ekiteko deia eginez.

Ekin dezagun batera, eta bota ordagoa sistemari!

Sorgin Jaiak Bilgune Feminista Multimusikalari Kultur Elkarte

Atez atekoa orain!

Lasarte-Oriako udalaxeak pleno batean onartutakoa, herrian atez atezko bilketa selektiboa ezartzea, zakarrera bota du. Herriari egindako inkestaren emaitzak, non atez atekoaren alde agertu baitziren herritarrak, zakarrean amaitu dute ere. Errausketaren aurkako eta erreferendumaren aldeko herriaren 8.000 sinadurak ere bertan daudela suposatzen dugu.

Tristuraz antzematen dugu beraz, udalaxeak adierazitako errausketaren aurkako iritzia, herriko edukiontzia bezain lurperatua geratu dela.

Atez ateko bilketaren inguruan plazaratzen ari diren gezur guztien gainetik, ezin ukatu lortutako emaitzak, hondakinak zaborren ehuneko minimora murrizten direla. Zaborra, hondakin ezberdinen

nahasketaz sortzen da, eta atez atekoak nahasketa hori eragozten du.

Honela, bi argudio ematen ditu udalak hartutako konpromezua ez betetzeko.

Batetik, Lasarte-Oriako biztanleen iritzia ez du baliorik, ez baitakite zer esaten ari diren.

Udalaxearen "hausnarketa sakon" hau kontuan izanik, ez luke bere burua legitimotzat hartu behar. Beraz, hurrengo hauteskundeetan herritarrek hausnarketa hau gogora dezaten espero dugu.

Bigarren argudioa da, edukiontzia emaitza onak ematen dituela "dirudi", beraz aztertu behar da. Interes gutxi antzematen zaio udalaxeari, hondakin arazoari irtenbidea emateko orain arte 5. edukiontzia "azterketa" egin ez badu.

5. edukiontzia bilketa gure inguruan dauden beste herrialde batzuetan frogatu moduan egon da hainbat hila-beteetan, atez atekoa baino denbora luzeagoz, eta azterketa honen bitartez, emaitza pobreak eta gastu ekonomiko handia duela frogatu da. Horregatik, epe laburrean edukiontzia

hori kenduko dute.

5. edukiontzia orain atez atezko bilketaren alderaketa gure inguru hurbilenean egin da, eta lortutako emaitzak, dudarik gabe atez atekoaren alde agertu dira. Gainera, 5. eduki ontziaren aukera, adimenari zuzendutako iraina edota errausketa babesteko engainu bat baxerik ez dela, eta ahalegin guztiak egiten ari direnaren ideia hori islatu nahia erakutsi lezake.

Hondakinaren errausketa osasun arazo publikoa da, eta beraz, udalaxeak herritarrekiko duen erantzukizun handiena. Honen aurrean, gure buruak astindu eta galdera hauek otu zaizkigu... Nork erabaki du benetan, eta alde batekoan moduan, herritarrentzako onurazkoa den eta plenoan gehiengoaz onartutako akordio bat ezerezean uztea?

Lasarte-Oriako biztanleak ingurugiro osasungarri batean bizi nahi dugu, eta horregatik errausketaren aurka agertu gara. Zerk bultzatzen du udalaxeak aurkako desiratzera?

Lasarte-Oria Bizirik!

IZARRA BITXITEGIA



IPARJOY[®] A.I.E.



www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalea 19,
Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g,
Tel.: 943 364945